


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 1 IBILBIDE OROKORRA

Irakaslearen koaderno
Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko Ikasleentzat





MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 1 IBILBIDE OROKORRA

SARRERA

Proposatzen den ibilbidea talde osoak batera gidari batekin egiteko pentsatua da. Gidaria Museoko langilea izan daiteke, edo irakaslea bera, bisitaldi autonomo gisa ere egin daiteke eta.

San Telmo Gizarte Museo bat da; alegia, iraganera begira etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Hartara, askotariko gaiak jorratzen ditu. Beraz, Museo zabala da zentzu guztietan. Bisitaldi bakar batean ikasleekin dena lantzea ezinezkoa denez, honako ibilbide honetarako izaera ludikoko hainbat adibide aurkezten ditugu, betiere erakusketa iraunkorraren muina ezagutzen ahalbidetzen dutenak. Haien bidez, historian zehar bizimoduen bilakabidea, lanbideak, iraunkortasuna, ondarearekiko eta museoen egitekoekiko sentiberatasuna jorratzen ahal dira.

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa alde zurretik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetako fitxetan erantzunetatik harago doazen azalpenak ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakaslearen gain geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Halaber, irakaslearen esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren ikastetxean jorra daitezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.





Bisitaldiaren prozedura:

Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren eta jorratu beharreko gaien aurkezpena.

Eliza:

Ikus-entzunezkoa (13 min.)

Ariketak beheko eta goiko solairuan:

Beheko klaustroan bertan eta “Espiritualtasun zeinuak” eta “Aztarnak oroimenean” erakustaretoetan; XVI. mendeko dorretik igota, goiko klaustroan eta bizimodu tradizionalari, industrializazioari eta Arte Ederrei eskainitako erakustaretoetan.

Proposatutako objektuen harira, gidariak hainbat azalpen emango du, bertan taldeak bete beharreko fitxaren datuak bete ditzan, zuzenean ahoz emandako erantzunen bitartez, fitxetan agertutako objektuen aldamenean. (Irakasleak bere kabuz egitea erabakitzen badu, bere esku geratzen da pasarte hau).

Ahazkotasuna nagusi izan arren, ikasleentzako fitxa ere bada, adibidez gerora ikastetxean bertan landu nahi izanez gero idatziz ere egin ahal izateko.

Fitxak lantzeko ordena gehienbat ibilbide koherente bat egiteko (atzerabiderik gabe) planteatzen da, baina ez da ordena zorrotzekoa, fitxak berez autonomoak dira eta. Hain zuzen, proposatzen diren hamabi fitxak gehieneko kopurua da, haietarik taldearen interes, ahalmen eta igurikipenen arabera batzuk edo bestetzuk hautatzeko aukera izan dadin.

Era berean, ibilbide bera egiten duten bi ikastalde egonez gero, bisitaren ordena (hala nola, goiko klaustroan hasita) alda daiteke.


OHARRA: Irakasleen gida honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.





**Hona hemen, beheko eta goiko solairuen plano banatan,
ariketa bakoitza egiteko kokalekua:**

Beheko solairua






MUSEO BAT, HAMAICA KONTU 1

IBILBIDE OROKORRA

Goiko solairua



- **Bila ezazue zulo bat duen hilarria. Zer ote da zulo hori: begia, heldulekua, eguzkia?**



Egia esan, ez dago jakiterik nork edo nortzuk zergatik edo zertarako egin zioten halako zuloa hilarriari, ezta hilarri egin orduko edo gerora egin zitzaion ere. Hilarriak erromatarren aurreko garaietatik heldu zaizkigu eta Erdi Arokoaz geroztikoak argi eta garbi hildakoen aldeko monumentuak direla jakin arren, lehenago bestelako sinbologiarik ote zuten ezin jakin.

Arkeologiak misterio asko argitzen du, baina ez dena! Horregatik, zilegi da bakoitzak bere iritzia izatea.



○ Zer ote da honako hau?



ipotxen etxetxo | **kutxa erraldoia** | **ardo-upel karratua**

Garia gordetzeko kutxa bat da. Gaur egun garia ez ezik, maiz irina ere ez dugu ikusten, oso kopuru txikitan ez bada, ogia jadanik egina erosten dugu eta. Ez hain aspaldi, ordea, baserrietan garia eta XVII. mendeaz geroztik artoa egiten zen, errotan eho eta etxean bertan edo auzoko laberen batean erre eta jateko. Bizimoduak noraino aldatu diren adierazgarri, hona hemen gaur egun heldu askok ere ezagutzen ez duten hainbat objektu.



○ Zer ote da honako hau?



enborra | zutabea | kanoia

Euskal Herrian burdingintza garrantzi oso handiko jardunbide ekonomikoa izan da mendeetan zehar. Burdingintzaren baitan, armagintzak sekulako garrantzia izan du.



○ Nola mugitzen zen itsasontzi hau?



belaz | arraunez | lurrunez

Euskal Herrian zura lortzeko baso asko zegoenez, eta Iberiar Penintsularen eta Europar Mendebaldearen artean dagoenez, lehorreko garraiobideak oso zailak ziren garaian sekulako hazkundea izan zuten euskal portuek merkatal gaiak (euskal burdina barne) hara eta hona eramaten. Gerora, Ameriketan eta mundu osoan barna ibiltzeko ere euskal itsastarrak nonahi agertzen zaizkigu. Adibidez, lehen mundu bira euskaldun batek egin zuen, Elkano getariarrak.



○ **Eskulturari zerbait falta zaio. Zer gehiago izango zuen jatorrian?**



- **Geziak: kristaua zelako hil nahi zuten**
- **Sardea eta sarea: erromatar gladiadore bat da**
- **Betaurreko beltzak, toalla eta eguzkitakoa: udatiar bat da**

San Sebastian da, eta kristau ikonografian hala agertu ohi da: zuhaitz bati lotuta, geziek zulatuta, nahiz eta eskultura gehienetan geziak desagertu diren. Donostia (Done Sebastia izen zaharretik eratorria) hiriak San Sebastian monasterio baten ondoan fundatu zelako dauka halako izena eta, jakina, patroia, urtarrilaren 20an ospatzen dena.

OHARRA: Arte Ederretako goi-solairuan da, Bilduma Historikoan.



○ **Guri begira dagoen agurea beste koadro batetik ere begira dugu. Aurki itzazue biak, eta alderatu: ez al da harrigarria?**



Batak Ignacio Ugarteren Donostiako Misericordia Etxean eskaleei jaten ematen zutenekoa islatzen du. Bestea aurrekoaren urteen inguruan Joaquin Sorollak eskale bati egindako erretratua da. Ezin da guztiz ziurtzat jo, baina biak “modelo” bera izateko aukera handiak daude.

Arte Ederretan barna koadroei erreparatuta paseatzeko aitzakiaz, arteaz gogoeta egiteko parada: Arteak “edertasuna” islatzea izan behar du helburu, ala errealitatea erakustea? Errealitatea “edertuta” (koadro ederrak eta oso ongi eginak daudelako) leunagoa al zaigu?



○ Kapelu hauetatik, zein jantziko zenukete?



Norberaren iritziez harago, bizimoduaren aldaketak agertzeko ariketa: duela ehun bat urte mundu guztiak estaltzen zuen burua, gizona izan, emakumea izan, haurra izan, heldua izan, aberatsa zein pobrea izan. Besteak beste, aberatsa izanda ere, burua egunero edo behintzat maiz garbitzeko aukera murrizta zelako eta betaurreko beltzik ez zelako: modak moda, adinak adin eta diruak diru, burukoek hotzetik, eguzkitik eta hautsetatik babesten zuten. Xanpuek eta etxean ur beroa izateak lagundu zuen ilea maizago garbitzen; emakumeak ere ilea motzago eramaten hasi ziren, eta kapeluak gero eta gutxiago erabiltzen hasi ziren.



Bila ezazue Museoan dantza egiten duen animalia:

Erne: animalia hauetako bat da, baina ez irudi hauetako bat (nahiz eta Museoarenak izan). Gainera, zailxeago egiteko, gure animalia “dantzaria” beste objektu batean dago.



hartza | zaldia | karramarroa

Zaldia da; hain zuzen, zamaltzaina, zaldizkoarena egiten duen dantzaria, Zuberoako Maskaradako figura inportanteenetako bat da, beste hainbat inauteri eta festetan aurkitzen dena.

Objektu bakoitzak gai oso zabalak jorratzeko aukera ematen duela adierazteko ariketa. Halaber, museo batean erakusten dena baino gehiago gordetzen dena dela adieraztekoa, beste hiru objektu hauek orain ez baitaude ikusgai: ez dago dena batera erakusterik, espazio ikaragarria eskatuko lukeelako. Baina museoek denetariko ondarea gordetzeko egitekoa betetzen dute.



○ Zerez beteta egoten da frontoiko pilota bat?

airez | errautsez | kautxuz

Denetariko pilota-jokoak aspaldi handitik mundu osoan aurkitzen diren arren euskal pilotaren ezaugarri nagusia da paretak erabiltzea; halako modalitateak batez ere XIX. mendean zabaldu ziren, piloten muinean kautxua sartzean, hark bote egiteko aukera izugarri handitu zuen eta. Halaber, eskularruak ez baina zestak erabilita, luzeagoak eta arinagoak izaki, joko ikusgarriak asmatu ziren.

Ikusgarriena, ordea, ez dago ikusgai: Museoan pilota bat egiteko prozesua erakusten da pilotari artisau baten dohaintzari esker: zurezko nukleoa, kautxuz bildua, artilez estalia eta azkenik larruz forratua.



Museo batean erakusten den objektuen baitan lanbide eta jakintza asko laburbiltzen direla adierazteko ariketa.



○ Zer harrapatuko zenuke honekin?



angulak | tximeletak | antxoak

Euskal Herriko estuarioetan oso arrunta zen animalia, angula, aingiraren kumea, oso gutxitan harrapatzen da aspaldiko urteetan, gehiegizko arrantzarengatik ez ezik, ibaien kutsadurarengatik ere. Horregatik izaten dira ikaragarri garestiak. Horrez gain, Asiako hainbat herrialdek, esaterako, Japoniak, bizirik erosten dituzte, handitzen direnean aingirak jateko; horrela ez da horren garestia izaten eta hobeto aprobetxatzen da jakia.

Iraunkortasunaz eta kontsumo arduratsuz gogoeta egiteko ariketa.



Bila itzazue zuen patin eta patineteen aitona-amonak.

Pista bat: Sancheski deitura dute

Honako hauek dira:



Oraingo hurren gurasoek ezagututako jostailuak dira.

Historiaz ari garenean, oso aspaldiko gauzez gain, museo batek atzoko edo, areago, egungo ondareaz ere arduratu behar duela adierazteko ariketa: horrela bermatzen da etorkizunean gaur egungo kultura ere islatuko dela. Izan ere, historia egitandiek ez ezik, eguneroko gauzek, jostailuak eta guzti, osatzen dutela ere jabetu behar dute haurrek.



○ Zuen sukaldeko hiru objektu hauen artean, zein sartuko zenukete San Telmo Museoan?

Honako hauek dira:



batidora | kortxo-ateratzekoa | zartagina

Kortxo-ateratzekoa da, hain zuzen Euskal Herrian egina delako. Beste biak ere sar litezke, egia esan; baina kortxo-ateratzekoaren kasuan euskal diseinua da, Eibarkoa hain zuzen, arrakasta handia izan duena eta beraz edonon aurki daitekeena.

Aurreko ariketan sakontzen jarraitzeko proposamena: oraingoan umeek berek lehenago erantzun behar dute, horrek eskatzen duen gutxieneko hausnarketarekin, eta etxean lasai asko aurki dezaketen objektu bat topatuko dute museoan, oso objektu arrunta eta batere deigarria "museoko objektutzat", hartuko ez luketena.





MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 1 IBILBIDE OROKORRA

ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:

Museoen zeregina ondarea biltzea, behar bezala gordetzea eta zabaltzea da; ondarea zaintzea, ordea, denon ardura da.



Beheko klaustroan, "Aztarnak Oroimenean" aretoaren aldean.

- San Telmok ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorrak izan arren.

Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. Igurtzi eskuz:

Zer gertatzen da? **Hondar aleak erauzten zaizkiola.**

- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.

Konparatu orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetakoa.

Zein orrialde kontserbatu da hobeto? **Argitu gabea.**

- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?

Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.

Ezetz asmatu zein den burdinaren etsairik okerrenetako bat!

- Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.
- **Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.**
- Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.

Izerdia (eta hatzei izerdia darie, etengabe) hezea eta gazia da, eta elementu hauek biek metalak herdoiltzen dituzte.

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzeko materialak narriatu egiten dira.

Baina okerrera aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. Konparatu material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?

Larrua, oihala eta egurra oso heze, oso lehor eta behar bezala: hiruna puska.





MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 1 IBILBIDE OROKORRA

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



berria^{ento}

GARA

naiz:

